

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko “Aretxabaleta–Gardelegi” 19. sektore zaharreko 2.65 OAKo OR-9-20 etxadiko 1, 2, 3, 4 eta 5 lursailen xehetasunezko azterketari

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko martxoaren 27an egindako ohiko bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen:

1. Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko “Aretxabaleta–Gardelegi” 19. sektore zaharreko 2.65 OAKo OR-9-20 etxadiko 1, 2, 3, 4 eta 5 lursailen xehetasun-azterketari. Azterlan hori Esparza Arquitectura y Rehabilitación Sostenible sozietate mugatu pertsona bakarreko eta profesionalak idatzi zuen, KREA S19 SL sozietatearen ekimenez, dossierrean jasota dagoen proiektuaren arabera. Hala ere, behin betiko onetsi aurretik, dokumentazio berria aurkeztu beharko da paperean eta CD formatuan, 2026ko martxoaren 4ko txosten teknikoan adierazitako zuzenketekin.

2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1.d) artikulua arabera, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren nahitaezko txosten loteslea jaso ezean, eten egingo da behin betiko onesteko epea.

3. Dosierri jendaurrean jartzea, hogeit egunez, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, dosierriak eragiten diola uste duen orok aztertzeko aukera izan dezan eta egokitze jotzen dituen alegazioak edo oharak aurkeztu ahal izan ditzan.

Dosierri Vitoria-Gasteizko Udaleko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25 —, adierazitako epean, ALHAOn argitaratzen denetik.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko martxoaren 31n

Alkate-lehendakaria
MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA